


# Lurraldearen Antolamendurako Artezbideak:

## Euskal Hiria, ala bestetik, eredu eutsigarri, kohesionatu eta koherente baten arteko hautua.



Gako-hitzak:  
lurralde-antolakuntza,  
Lurraldearen Antolakuntza Artezbideak,  
neoliberalismoa

Aitor Bilbao °

### Lurraldea orekatzeko eraginkortasunetik deslegitimazioa

Lurralde-antolamenduak, politika publiko eta pentsamendu dialektiko modura, atzera-aurrerako mugimendu pendularrak izan ditu beti, 1950eko hamarkadan bere lehen formulazioak izan zituenetik. Industrializazioa gailurrera heldu zenean, hain zuzen ere, ingurumenaren eraldaketa sakona eragin zuten teknologia eraginkorrak asmatzean eta eskalako ekonomiak bilatzeko bidean, bi motatako lurralde-desorekak hasi ziren islatzen: lurzorua erabileren arteko bateraezintasun fisikoa eta arazo ekologikoak, batetik, eta lurraldearen eremuen arteko desoreka sozio-ekonomikoak, bestetik. Fenomeno berri hauen aurrean, Erresuma Batuan lurzorua erabileren osotariko mapak irudikatu eta lehenengo landa- zein hiri-planeamenduak egiteko lege-aginduzko derrigortasunarekin hasi ziren (Town and Country Planning Act -1947-); bestalde Frantzia 1960ko hamarkadan DATAR agentzia sortu eta “Le debat national pour l’aménagement du territoire” direlakoei ekin zieten.

Ostean, 1973. urteko lehen krisi ekonomiko globala erori zen, eta orduan jaio berria zen ideologia neoliberalak aukera aprobetxatu zuen planifikazio publikoaren aurka jarduteko, eta haren ordean, merkatu askearen oinarrien nagusitasuna eraikitzen hasi zen, gaur neo-erlijio antzekoa bihurtu zaiguna. Orditik, lurralde-antolamenduak planifikazio publikoek oro har jasotzen duten deslegitimazio ideologikoa (neoliberalismotik) jasan izan du. Noizbehinka, izan dira saiakerak eremu dialektikoa berreskuratzeko, baikortasun teknologikoak ahalbidetu zuen garapenkeriaren aurrean *bazkandaren mugen* (Erromako Klubaren txostena) inguruko diskurtsoak agertzen hasi zirenean, adibidez, 1983. urtean Europar Kontseiluko Ministroen Bilkurak Lurralde Antolamendua Europako Gutuna sinatu zuenekoan. Bertan, lurralde-antolamenduak fenomeno eta egintza ekonomiko, ekologiko, sozial eta kulturalen epe luzerako joera eta eboluzioa ikertu eta politikak garatzerakoan aintzat hartu behar dituela ezartzen zen.

### EAEko Lurraldearen Antolamendurako Artezbide motelak


EAEra begira, 1990. urteko Lurralde Antolamenduari buruzko 4/1990 Legea dago. Lege horren Zioen Adierazpe-nean, lurralde-antolamendua politikara gidatu behar duten abiapuntuko analisiak eta asmo zuzentzaile nabarmeneko helburuak agertzen dira. Lehen aipatutako mugimendu pendular horretan, antolamendu araugilearen aldeko zatia hartu daiteke.

Hasteko, EAEko lurralde-antolamendu politika premia baten beharra ikusten zen orduan, “...mende honen bigarren erdian jasan duen hiri eta industri hazkunde kontrolgabeak ekarri dituen eraginei aurre egiteko”. Helburu zehatz bezala, “*lurzorua eta baliabideen erabilpenik arrazoi zkoena... baita eragina izango duten aginte maila ezberdinen artean ezarri behar diren harremanen zehaztapena*” eta “*herritarrei osasun, irakaskuntza, administrazio... ekipamenduak ahalbidetzea eta baliabide naturalen kudeaketa arduratsua eta ingurumenaren babesa*”. Legearen 1. artikuluan, berriz, bi xede nagusi azpimarratzen dira: **lurralde-antolamendurako tresnak definitu eta arautzea (Lurraldearen Antolamendurako Artezbideak —LAA— tresna nagusi bezala)** eta **lurraldean eragina duten herri-administrazio ezberdinen arteko ezinbesteko koordinaziorako irizpideak eta prozedurak ezartzea**.

Legearen 6. artikulua LAAen gutxienezko edukia zeren zeren izan behar zena zehazten duen:

a) Lurralde-diagnostikoari buruzko artezbideak:

Euskadiko lurraldearen azterketa zehatza, bertan diren arazoaren definizio argia eta izan ditzaketen konponbideen aukerei buruzko balorazioa (1. artezb.) + etxebizitza beharren kuantifikazioa (7. artezb.) + ekipamendu gabeziaren ebaluazioa lurralde eremura sailkatuta (8. artezb.) + mugiezin eta historiko-artistiko iazeraadun jabegoak dituen birgaitze beharrezan balioespen orokorra (9. artezb.).



LAA berrien arabera EAEko eta inguruetako azpiegitura nagusien plano.

b) Lurraldetasun ikuspegitik kokagune egokia diren zehaztapena:

Natura babesteko eremu bereziak (3. artezb.) + Nekazaritza interesadun Eremuak (4. artezb.) + azpiegitura handien eta ekipamenduen eremuak (6. artezb.) + etxebizitzek kokatzeko eremuak (7. artezb.).


c) Erakundeen arteko koordinazioari buruzko zehaztapenak: Agertu diren arazoei aurre egiteko egintzen arteko koordinazioa (2. artezb.) + Herri Administrazio desberdinen arteko politiken eta egintzen koherentzia bermatuko dituzten elkarrenganako informazio sistemak (10. artezb.)

Lege hau indarrean sartu zenetik zazpi urte igaro behar izan ziren lehen LAA erditzeko, asko kostata ere. Urte horiek guztiak ez ziren ez alferrik igaro, eta LAAen 1997. urteko bertsio honek, alde batetik, lurralde-analisen ordeztasunak (arazoak, ekipamendu beharrak eta gabeziak...) eta lurralde-koherentzia bilatu beharrean (ekipamendu, inbertsio, zerbitzu... publikoenganako berdintasuna), *lurraldearen lehiakortasunean oinarritutako* etorkizun oparodun gizarte iragartzen zigun; eta bestetik, erakunde-maila desberdinetatik, artezbideen ereduak eskumen instituzionalen *inbasioa* suposatu ditzaketela kexu agertu ziren, eta lege-aginduz lotu behar zen koordinazioa eta plangintzen arteko koherentzia, eskumenen partekatzearen azpian geratu behar zen. *Eskumena* kontzeptua, *funtzio* edo *zereginaren* zentzua jaso beharrean, *abalmena-agintea* modura ulertu izan da beti kostalde hauetan. Ondorioz, azken emaitza bezala, plangintzarentzako artezbide lotesle bakar modura “ingurune fisikoaren matrizea” deiturikoa eta etxebizitza-eskaintza gehieneko kalkulatzeko sasiformula (*indize zuzentzaile* askorekin) bat besterik ez ziren geratu.

Testua bera esanahi, adierazpen, etab... kontrajarriz beterik agertzen zen, hitz-joko zaparradadun estilo literario batean. Dena, edo ia, LAAen garapenerako plangintzaren zain utzi zuten orduko Jaurlaritzak, hau da, Zatikako eta Arloko Planen esku. Orduetik, gaur egun, oraindik, hainbat Zatikako Plan falta dira onartzeko, Bizkaian honako Eremu Funtzionaltakoak: Balmaseda-Zalla, Durangaldea, Gernika-Markina eta Mungia, hain zuzen ere Bilbo Metropolitarrarekiko periferikoak direnak; eta Gipuzkoan: Donostia-Behe Bidasoa eta Tolosaldea... ez da hutsune makala. Arloko Plani dagokienez, salagarria da hain estrategikoa izan beharko lukeen Nekazaritza eta Baso Arloko Planak hamarkada bat daramala zirriborro gisa, hasierako onarpenik ere jaso gabe, eta berdina esan beharko portuei dagokienarekin edo errepide-bidezko Garraioari buruzko Arloko Planaren utzikeriarekin gertatu dena.

Aurreko lerroetan esana dago, korronte neoliberalak (dagoeneko uholde?) herri-administrazioetatik sustatutako planifikazioak jasotzen duen deslegitimazioa, erabat ideologikoa. Literatura postmodernoa, beti esku bat botatzeko prest, sasoi honi “gizarte likidoa” izena jarri dio. Arlo juridikoan, eta aginte publikoaren adierazpen tradizional nagusia izan den Legeak ere garai berrietarako egokitzapena bizitzen ari da. Adierazle nagusia, “*soft law*” (lege biguna) deritzon doktrinatik dator (“*hard law*” tradizionaletik bereizteko): arauak, erregulazioak, betebeharrak... eta abarren ordeztasun, ahalegin, jardueraren egokiak, erantzukizun korporatiboa eta antzeko *berrikuntzen* neurri egindako Liburu Zuri, Gomendio... asmatu berri diren *tresna juridikoek* hartu dute aurrea.





LAA berrien arabera hiru iraultzak eta hiri-irrikamenduen ereduak.

### LAA berriak: gauza bera

Panorama honen erdian dator, orain, Euskal Hiria.Net izena jarri dioten LAAen gaurkotzea. 1997. urteko bertsioan zeuden ezaugarrietan sakontzen du, esan daiteke, estiloa depuratu egin dela, indefinizioan urrunago eramanda. Deigarria da, pasa-hitzak modukoak direnak asmatzeko duten irudimena, aipatzearen, “*euskal hiria*” bera, hori azaltzeko tesi oso bat beharko litzateke (badabil norbait horretan, agian), edo zer esan “*berrikuntzaren ekosistema*”-ri buruz...

Berrikuntza eta lehiakortasuna dira hain zuzen, lurralde-antolamendurako egitasmo honen ardatza eta politika guztietarako neurgailuak. Lehiakortasuna, hain justu, neutu ezinezkoa den kontzeptu horietako bat (zein da lehiakorra, ehun metro lasterreko korrikalaria edo maratoikoa?). Eta non garatzen da eredu honetan lurraldearen beraren jarduerak jasotzeko *karga-abalmena*, eta kohesioa?, ez dute kapitulu bat ere merezi Euskal Hiria.Net honetan.

Hau al da dagoen aukera bakarra? Bada, Europar Batasunera jota, aintzat hartzekoa da 1999. urtean Ministroen Batzordeak onartu zuen Europarako Lurralde Estrategia. Adierazpen nagusiek honako tenorea dute: “*Europarako Lurralde Estrategiak garapen orekatua eta eutsigarria du helburu nagusitzat, bereziki kohesio ekonomiko eta soziala indartuz*”. Helburu konposatuaren hiruki bat irudikatzen du: kohesio ekonomiko eta soziala + baliabide naturalen eta ondarearen babesa + lurraldez orekatutako lehiakortasuna. “*Lurralde dimentsiotik garapen orekatuago bat lortzeko, biru helburu hauek, eskualde guztietan, batera landu behar dira, beraien arteko elkarreaginak kontuan hartuz*.”

### Norabidez aldatzeko garaia

Amaitzeko, 1990. urteko Legeak, lurralde-antolamendurako politikari jarraitu beharreko oinarri eta lortu beharreko helburu zehatzak jarri zizkion. Ezarritako tresnak, plangintza publikoan sustatzen ziren, lurralde-antolamendurako politika, desoreka ekonomiko, sozial, ekologiko eta kulturalak birbideratzeko eta zuzentzeko prozesu eraginkor gisa irudikatuz. Aldiz, korrante neoliberalaren ildokotzat hartu daitekeen diskurtsoa hautatu du Jaurlaritzak (oraingoak eta baita aurrekoak ere), Lurralde Artezbidetuek edukiz eta indar loteslez hustu ditu, *soft law* ariketa batean. 1997. urteko bertsioan, zein oraingo Euskal Hiria.Net berrian ez dago lurralde-eredu eutsigarri, kohesionatu eta koherente bat. Egun pairatzen ari garen krisi ekonomikoa, hautatutako gizarte-eredu baten ondorio zuzena da, eta hautaketa hori lurralde-antolamendu politikan ere eman izan da. Lurralde-antolamenduaren arloak “hamarkada alferrik galdua” lerroburua merezi du, bada, beraz, norabidez aldatzeko unea, edo agian, hobeto esanda, Legeak ezarritako lerroetara zuzentzekoa.



© Aitor Bilbao zuzenbidean lizentziatua da.